

## BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

6132

*EBAZPENA, 2021eko azaroaren 29koa, Kulturako sailburuordearena, 2021. eta 2022. urteetan euskal kultura-ondare immateriala babesteko lanak egiteko dirulaguntzak emateko dena.*

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2021eko uztailaren 30eko Aginduaren bidez (irailaren 14ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 183. zk.), 2021. eta 2022. urteetan euskal kultura-ondare immateriala babesteko ikerketa-lanak egiteko dirulaguntzen deialdia arautzen da.

Eskabideak aztertu ondoren, eta deialdiaren 15. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, Balorazio Batzordeak, 2021eko azaroaren 18an egindako bileran, dirulaguntzak emateko proposamena egin zuen.

Horregatik guztiagatik, Balorazio Batzordeak egindako proposamena ikusita, eta aipatutako aginduaren 17. artikuluekin eta aplikazio orokorreko gainerako xedapenekin bat etorritz, honako hau

### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– I. eranskinean zerrendatzen diren eskatzaileei dirulaguntzak ematea, zehazten diren zenbatekoekin.

Bigarrena.– Eskatutako dirulaguntza ukatzea ebazpen honen II. eranskinean ageri diren pertsonen, eranskinean bertan ematen diren arrazoiengatik.

Hirugarrena.– III. eranskinean zehaztutako eskabideak ez onartzea, bertan azaldutako arrazoiengatik.

Laugarrena.– Proposatutako pertsona eta entitate onuradunek agindu arautzailean ezarritako baldintzak bete beharko dituzte, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eremuan oro har indarrean dauden gainerako baldintza guztiak ere.

Bosgarrena.– Diruz lagundutako proiektuek hasita egon beharko dute, edo 2021eko ekitaldian hastekoak izan beharko dute. Amaitzeko epearen azken eguna 2022ko urriaren 3a izango da, eta ezin izango da gauzatzeko epea data horietatik aurrera atzeratu edo luzatu.

Seigarrena.– Dirulaguntza arautzen duen Aginduaren 20. artikuluan aurreikusitakoaren araber, honela ordainduko da dirulaguntza:

a) Lehenengo ordainketan, dirulaguntzaren % 50 ordainduko da, dirulaguntza ematen den nean, berariaz uko egiten ez.

b) Gainerako % 50a gastua justifikatu ondoren ordainduko da, dirulaguntzaren indarraldia amaitu eta eskatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren.

Zazpigarrena.– Emandako dirulaguntzak Aginduaren 21. eta 22. artikuluetan xedatutakoaren arabera justifikatu eta likidatuko dira. Justifikazio-agiriak aurkezteko azken eguna 2022ko urriaren 31 izango da, egun hori barne.

Zortzigarrena.– Ebazpen hau pertsona eta erakunde interesdunei jakinaraztea.

Bederatzigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, jende guztiak horren berri izan dezan, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 49.2 artikulua araberaz.

#### AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, hilabeteko epean, pertsona eta erakunde interesdunek ebazpen honen jakinarazpena jaso edo Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroaren 29a.

Kulturako sailburuordea,  
ANDONI ITURBE AMOREBIETA.

2021eko abenduaren 7a, asteartea

I ERANSKINA  
EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

Esp. Kod.	Proiektuaren izenburua	Eskatzailea	Puntuak	Diru-laguntzaren diru-kopurua (euro)	1. ordainketa %50-2021 (euro)	2. ordainketa %50-2022 (euro)
022-OIB-2021	2022. urteko bertso sorkuntzaren corpusaren bilketa eta ikerketa: bat bateko bertsoak idatziz, doinuak, biografiak eta grabazioak.	Bertsozale Elkartea	95	30.000,00	15.000,00	15.000,00
016-OIB-2021	Estudio de documentación, investigación y trabajo de campo sobre el Patrimonio Cultural Inmaterial en Arabako Mendialdeko Kuadrilla / Cuadrilla de Montaña Alavesa.	Labrit Ondarea	93	21.130,00	10.565,00	10.565,00
005-OIB-2021	Geu be bagara itsasoa.	Labayru	93	30.000,00	15.000,00	15.000,00
012-OIB-2021	Dantza tradizionalaren babesa.	Euskal Dantzarien Biltzarra	88	30.000,00	15.000,00	15.000,00
007-OIB-2021	Marijesiak Bizkaiko Gabonetako Kantuerronda.	Soinuenea Fundazioa	85	24.447,47	12.223,73	12.223,74
003-OIB-2021	Balmasedako Semana Santa.	Balmasedako Udala	80	30.000,00	15.000,00	15.000,00
015-OIB-2021	Las Veredas / Auzolan: trabajo y solidaridad comunitaria en los Concejos de Álava / Araba.	Ondare Babesa, SL	80	30.000,00	15.000,00	15.000,00
			GUZTIRA	195.577,47		

## II. ERANSKINA

## UKATUTAKO ESKAERAK

Esp. Kod.	Proiektua	Eskatzailea	Puntuak	Arrazoa
009-OIB-2021	Itsasotikoak Itsas ondare inmateriala Urola Kosta eskualdean.	Mundubira 500 Elkano Fundazioa	75	(1)
008-OIB-2021	XIX-XX-XXI. mendeetako sagardogintzako kultur-ondare immaterialaren inguruko ikerketa historikoa eta Sagardoa: ofiziotik aisialdiraerakusketa.	Sagardun Patzuergoa	70	(1)
023-OIB-2021	Deustuko aureskua saretzen.	Bihotz Alaia folklore dantza taldea	65	(1)
006-OIB-2021	Euskal Kultura-Ondare inmaterialaren inbentario fitxak (errebotea eta jokogarbi).	Zubietako Pilota Elkartea	60	(1)
024-OIB-2021	Antzuolako Alardea: Webgunea berritzea eta haurrendako komikia.	Antzuolako Udala	60	(1)
026-OIB-2021	Trikipedia garatzea.	Soinuaren hotsa Kultur Elkartea	58	(1)
019-OIB-2021	Musica Vasconiae.	Asociacion Sociedad Coral de Bilbao – Bilboko Korral Elkartea	55	(1)
017-OIB-2021	Euskal kondairak Barandiaranen ahotik.	José Miguel de Barandiaran Fundazioa	53	(1)
028-OIB-2021	Patrimonio Inmaterial de la ciudad de Hondarribia (Gipuzkoa, País Vasco). Una visión integral.	Miriam Ayerbe Irizar	50	(1)
018-OIB-2021	Tradición del carnaval rural minero.	Fundación Museo de la Minería del País Vasco	45	(2)
030-OIB-2021	Zurjole, salvaguarda de las Técnicas Artesanales Tradicionales.	Daniel Lizarralde Aguirre	48	(2)
025-OIB-2021	Kataia eten barik.	Eskoriatzako Udala	45	(2)
010-OIB-2021	Salvatore Deuna Abesbatzaren ehun urte (100 años).	Joseba Urretavizcaya Inchausti	40	(2)
021-OIB-2021	Recuperación de la txabola de Arlamendi (Baranbio).	Asociación Agrupación etnológica Aztarna, de Amurrio (Araba)	35	(2)

(1) Lortutako puntuazioa agindu arautzailean dirulaguntza jasotzeko eskubidea izateko ezarritako gutxienez iritsi bada ere (Aginduaren 15.1. artikulua), ezetsi egin da baliabide ekonomiko erabilgarriak agortzeagatik.

(2) Lortutako puntuazioak ez du lortu dirulaguntza jasotzeko eskubidea izateko agindu arautzailean ezarritako gutxienezkoa (Aginduaren 15.1. artikulua).

2021eko abenduaren 7a, asteartea

III. ERANSKINA  
BAZTERTUTAKO ESKAERAK

Esp. Kod.	Proiektua	Eskatzailea	Arrazoa
001-OIB-2021	Bidaniako ontzi fabrika-Proiektu multidisziplinarra.	Bidania Goitzeko Udala	(2)
002-OIB-2021	Memoria-mecánica: trabajadoras y máquinas del textil.	Asociacion de mujeres Izaera de Deusto y San Ignacio	(2)
004-OIB-2021	Estudio y recuperación de la memoria colectiva y el Patrimonio Inmaterial relacionado con el Áncora de Abechuco.	Euskal Herriko Unibertsitatea	(2)
011-OIB-2021	Las manos que cosen.	Cristobal Balenciaga Fundazioa	(2)
013-OIB-2021	Makinetatik haratago - Gure industriaren memoria berreskuratuz 2021-2022.	Aranzadi Zientzia Elkarte	(2)
014-OIB-2021	Legazpi Zine Klub Elkartearen Kultura-Ondare Immateriala eta haren eragina Legazpiko gizartearen.	Lenbur Fundazioa	(1)
020-OIB-2021	Prehistoria Reciente En El País Vasco Septentrional: Cronología Absoluta Y Cambios Culturales (Precrono).	Jose Miguel de Barandiaran Fundazioa	(1)
027-OIB-2021	Euskal Herriaren Ondare Immateriala «Gizabidea».	Euskal sena	(1)
029-OIB-2021	Relaciones histórico culturales entre la comunidad vasca y Venezuela.	Milagros Coromoto Mata Gil	(3)

(1) Dirulaguntzaren xede den jarduerak ez du betetzen dirulaguntza hauen xedea (Aginduaren 1. eta 2. artikulua).

(2) Proiektua ez zaio egokitzen maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 11. artikuluari, non ondare Immateriala osatzen duten ondasunen kategoriak adierazten baitira.

(3) Eskatzaileak dirulaguntzari uko egin dio.